


# Mandragoran mobida bat

Xabier Ansa Zeberio

Vía muy recomendable. Integra en libre; no comporta ningún paso de extremada dificultad, aunque sí bastantes alrededor del quinto grado. No es muy vertical por lo que deja de ser mantenida. Bastantes bavareas, alguna fisura por empotramiento así como alguna travesía delicada en placa. Roca buena en general excepto en un par de largos (quinto y décimo). En el cuarto largo una clavija conduce a un embarque. Suficientemente equipada: reuniones y pasos claves (normalmente con buriles). Material: cintas express y excéntricos medianos y grandes. Horario: de 5 a 6 horas. Está situada a la derecha de la Anglada.



**Josetxo:** Hik hainbeste maite dituan mendiekin elkartzen uzten ez diaten horri eskainia. Lasai, mendiek betiko lekuan jarraituko bait ditek.

Larunbata da. Goizeko seirak dira etxeko ohe gozotik jaiki garenean, eta bagoaz. Atzean gure herria eta lagunak; aurrean berriz mendia eta ametsak. Berdun aldeko okindegian ohizkoak diren ogia eta madalenak hartu eta aurrera.

Kontuz hi, zer da hori: Puente La Reinan kontrola. «A ve er D.N.I.», «Y er cinturón de adorno o qué», «No es que...» Azkenean ere bakean utzi gaituzte.

Ordesara iritsi eta Cotatuero haranean gora abiatu gara. Motxila bizkarrean eta izerdi tantak masailean behera. Eguzkiak gogor jotzen du; basoak ematen digun itzala izan ez bagenu... Gallinero eta Fraucatan zerbait egiteko asmoz gatoz. Gaur azkeneko honetan, «Mandrágora» igogera egin nahi dugu.

Txabolon gauza gehienak utzi eta eguerdian eskaladaren haseran gaude. Hasera erreza da eta berehala gauza politagotzen hasten da, zailtasuna ere igotzen den era berean. Bi babaresa zoragarri atera ditugu eta orain Josetxo, aurrean ikusi duen hiltze galdu batek engainatu duelako, «enbarkatu» egin da. Daramagun reseña irakurri diot eta berehala konturatu da gauza nondik nora doan. Atetik Mariano eta Kotteli datoz; laurok bagoaz piskanaka goruntz.

Ondoren tximina bat dator, zailtasun txikia du baina oso kontuz ibili beharrekoa

da, harria oso apurtua baitago. Hau bukatu eta gero bloke haundi baten gainean eserita minutu lasai batzuk. Zein polita den Gallineroaren espoloia; ea bihar handik hori bera esaten dugun Fraukatatz.

Orduak aurrera doaz eta plaka bat eta diedro baterik igo ondoren, igoera honen zatirik ederrenera iristen gara: eskuinean desplomeek eta ezkerrean zimurturarik gabeko izugarritzko plaka lehun eta sendoek alaitzen dute zuzenean gora atera behar dugun fisuraren itxura. Eskalada honen zatirik zailena da, baina era berean zatirik politena dela ere egia galanta da. Lehenbizi gorputza barruan sartuta, eta gero delako fisura hori babaresa zoragarri batetan azaltzen da.

Azken zatia ez da zaila baina bai kontuz ibili beharrekoa, hemen ere harria nahiko hautsia baitago.

Orain bai heldu gara.

Goian izarrak azaltzen hasiak dira tarteka etortzen diren hodei batzuren artean, eta behean berriz lehen asmoa eta orain errealitate bihurtu den zerbait. Hemen orain gustora, beste askotan bezala lasai eserita, zerbait utzi baina asko hartu dugunaren pentsamenduarekin, bihar beste zerbait hartuko dugulakoan.


Partaideak: Mariano Mateos, Joxe Luis Larrarte (Kotteli), Josetxo Rodriguez eta Xabier Ansa; 1982.ko irailaren azkenaldeko egun batetan.

«MANDRAGORA». La Fraucata. Ordesa. 340 m. M.D. 5-6 ordu.



*Atsedean bat eginaz, Gallineroaren Espoloiari begira.*

*Haseran, eskaladaren zatirik errazenean.*



*Hemen hasten da igoera honetako zailena baina era berean politena den zatia.*

